



A LA MESA DEL SENADO

El Grupo Parlamentario Vasco en el Senado (EAJ-PNV), al amparo de lo dispuesto en el Reglamento de la Cámara, solicita la tramitación de la siguiente Moción para su debate en el Pleno de la Cámara.

Palacio del Senado, 15 de febrero de 2023

Estefanía Beltran de Heredia Arroniz
Portavoz

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La movilidad constituye un derecho de toda persona que le permite su inclusión en la vida social, cultural, y económica. Y para ello, el transporte, y en especial el transporte público y sus infraestructuras, son instrumentos esenciales para el logro del objetivo de la plena inclusión y participación social. Así las administraciones públicas competentes en los diferentes modos de transporte están obligadas por ley y por justicia social, a garantizar la accesibilidad en los diferentes modos de transporte, y la libre movilidad, es decir, el uso autónomo de los medios de transporte, para poder desplazarse de manera autónoma por un entorno físico que garantice el acceso a dichos servicios. De tal manera que el transporte adaptado se erige uno de los objetivos principales de la plena accesibilidad.

Asimismo, la Convención de los derechos de las personas con discapacidad señala en su artículo 9 que "A fin de que las personas con discapacidad puedan vivir de forma independiente y participar plenamente en todos los aspectos de la vida, los Estados Partes adoptarán medidas pertinentes para asegurar el acceso de las personas con discapacidad, en igualdad de condiciones con las demás, al entorno físico, el transporte, la información y las comunicaciones, incluidos los sistemas y las tecnologías de la información y las comunicaciones, y a otros servicios e instalaciones abiertos al público o de uso público, tanto en zonas urbanas como en rurales".

Hoy contamos con numerosas leyes y normativa que nos obligan a poner fin a la discriminación que sufren las personas con movilidad reducida. También se han hecho esfuerzos tecnológicos y económicos en este sentido. Pero no han sido suficientes.



Desarrollo legislativo, como la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y su inclusión social, y el Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la misma, la ley 6/2022, de 31 de marzo, de modificación del Real Decreto Legislativo 1/2013, y el Real Decreto 1544/2007, de 23 de noviembre, por el que se regulan las condiciones básicas de accesibilidad y no discriminación para el acceso y utilización de los modos de transporte para personas con discapacidad, han marcado las obligaciones en relación a garantizar el derecho a la movilidad. Sin embargo, estas obligaciones no han sido acompañadas con hechos suficientes que garanticen ese derecho a la movilidad.

En el pleno de control del pasado 7 de febrero de 2023, le preguntábamos en el Senado a la Ministra de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana sobre si consideraba que se estaban dando avances suficientes para garantizar la accesibilidad universal en los servicios ferroviarios de cercanías en Euskadi.

La ministra se refirió a las inversiones para la adaptación de algunas estaciones, e incluso sobre el compromiso de ampliar la prueba piloto realizada a la orduñesa María Luisa Goikoetxea. Sin embargo, no hizo ninguna referencia al material rodante que le solicitábamos.

Las únicas unidades capaces de garantizar el acceso universal a todas las personas usuarias son los UT-s CIVIA, modelo que no circula en ninguna de las líneas de cercanías de Euskadi. A pesar de que el Plan de Movilidad de Renfe 2007-2010 incidía en la progresiva adecuación del material rodante, esta progresividad en la implementación de trenes accesibles no ha sido tal en las líneas Santurtzi-Bilbao, Orduña-Bilbao, Muskiz-Bilbao ni en la línea Irun-Brinkola en Gipuzkoa.

Teniendo en cuenta que las Administraciones Públicas son las que deben garantizar el acceso universal de todas las personas al transporte, permitiendo así su inclusión social, económica y cultural, el Grupo Parlamentario Vasco en el Senado (EAJ-PNV) presenta la siguiente moción:

MOCIÓN

El Senado insta al Gobierno a:

1. Realizar las actuaciones necesarias para dar cumplimiento a las obligaciones de accesibilidad en todos los modos de transporte competencia de la Administración General de Estado, constituyendo espacios de colaboración con las organizaciones que representan a las personas con discapacidad para analizar, diseñar y evaluar las medidas que permitan garantizar las condiciones de accesibilidad universal.



2. Garantizar la accesibilidad universal en el transporte ferroviario de cercanías, tanto en las estaciones como en el material rodante. Ofreciendo a las personas con movilidad reducida la información necesaria, en formato accesible, sobre las condiciones de accesibilidad y en especial, de la frecuencia y horarios de las unidades y trenes accesibles.
3. Garantizar, hasta la llegada del nuevo material rodante, un mínimo de unidades o trenes accesibles (CIVIA) en todas las líneas de cercanías ferroviarias operadas por RENFE, que permitan un acceso autónomo, sin necesidad de rampas, en las estaciones ya adaptadas, desde el andén al tren, eliminando así los obstáculos a la movilidad libre y segura de los usuarios.
4. Presentar, en el plazo de 3 meses, un plan de accesibilidad, con cronograma y dotación presupuestaria suficiente, en aras a garantizar que todas las líneas de cercanías dispongan de material rodante accesible desde el andén en aquellas estaciones ya adaptadas, y en el caso de que no lo estuvieran, para garantizar el servicio de asistencia a las personas con movilidad reducida para que puedan hacer uso del transporte ferroviario en condiciones de igualdad.

Coste económico: No se puede cuantificar pues no se dispone de los datos adecuados y precisos para realizar el cálculo.

ARRAZOIEN AZALPENA

Mugikortasuna pertsona ororen eskubidea da, eta bitzita sozialean, kulturean eta ekonomikoan barne hartzeko aukera ematen du. Eta, horretarako, garraioa, eta, bereziki, garraio publikoa eta haren azpiegiturak funtsezko tresnak dira erabateko inklusioa eta parte-hartze soziala lortzeko. Horrela, garraio-moduetan eskumena duten administrazio publikoak behartuta daude, legez eta justizia sozialez, garraiobide guztietan irisgarritasuna eta mugikortasun askea bermatzera, hau da, garraiobideen erabilera autonomoa bermatzera, zerbitzu horietarako sarbidea bermatuko duen ingurune fisiko batean modu autonomoan mugitu ahal izateko. Horrela, garraio egokitua erabateko irisgarritasunaren helburu nagusietako bat da.

Era berean, pertsona desgaituen eskubideei buruzko Konbentzioaren 9. artikulua honako hau adierazten du: "Pertsona desgaituek modu independentean bizi eta bizitzaren alderdi guztietan parte hartu ahal izan dezaten, estatuek neurri egokiak hartuko dituzte gainerakoek baldintza berdinean ingurune fisikoa, garraioa, informazioa eta komunikazioak –informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak barne– eta jendearentzat zabalik dauden edo erabilera publikokoak



diren beste zerbitzu eta instalazio batzuk –hiriguneetan zein landa-eremuetan– eskura izan ditzaten bermatzeko”.

Gaur egun, lege eta araudi ugari ditugu, mugikortasun murriztua duten pertsonak jasaten duten diskriminazioa bertan behera uztera behartzen gaituztenak. Ildo horretan ere ahalegin teknologikoak eta ekonomikoak egin dira. Baina ez dira nahikoa izan.

Hala nola, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorrak eta Lege horren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua aldatzen duen martxoaren 31ko 6/2022 Legeak eta desgaitasuna duten pertsonentzako garraio-bideak eskuratzeko eta erabiltzeko irisgarritasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarriko baldintzak arautzen dituen azaroaren 23ko 1544/2007 Errege Dekretuak ezarri dituzte mugikortasunerako eskubidea bermatzeko betebeharrak. Hala ere, betebeharrak horiekin batera ez da behar besteko egitaterik izan mugikortasun eskubide hori bermatzeko.

2023ko otsailaren 7an Senatuan eman zen ohiko kontrol-saioan, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako ministroari galdetu genion ea uste zuen nahikoa aurrerapauso ematen ari zirela Euskadin aldiriko trenbide-zerbitzuetan irisgarritasun unibertsala bermatzeko.

Ministroak estazio batzuk egokitzeko inbertsioei buruz hitz egin zuen, baita Maria Luisa Goikoetxea urduñarrari egindako proba pilotua zabaltzeko konpromisoari buruz ere. Hala ere, ez zuen inolako erreferentziarik egin eskatzen genion material ibiltariari buruz.

Erabiltzaile guztiei sarbide unibertsala bermatzeko gai diren unitate bakarrak CIVIA UT-ak dira, eta horrelakorik ez dabil Euskadiko aldiriko lineetan. Renferen 2007-2010eko Mugikortasun Planak material ibiltariaren egokitzapena azpimarratzen zuen arren, tren irisgarrien ezarpena ez da eman Santurtzi-Bilbo, Urduña-Bilbo, Muskiz-Bilbo lineetan, ezta Gipuzkoako Irun-Brinkola linean ere.

Administrazio Publikoak dira garraioa eskuratzeko eskubidea bermatu behar dutenak eta, horrela, gizarteratzeko, ekonomiarako eta kulturarako bermea emango die pertsona guztiei. Hau kontuan izanik, Senatuko Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) Taldeak hurrengo mozioa aurkezten du:

MOZIOA

Senatuak honako hauek eskatzen dizkio Gobernuari:

1. Estatuko Administrazio Orokorren eskumenekoak diren garraio-bide guztietako irisgarritasun-betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren jarduketak egitea, eta desgaitasuna duten pertsonen ordezkariak diren



erakundeekin lankidetzan aritzeko guneak eratzea, irisgarritasun unibertsalaren baldintzak bermatzea ahalbidetuko duten neurriak diseinatzeko eta ebaluatzeko.

2. Aldiriko tren-garraioan irisgarritasun unibertsala bermatzea, bai geltokietan, bai material ibiltarian. Mugikortasun murriztua duten pertsonei irisgarritasun-baldintzei buruzko eta, bereziki, unitate eta tren irisgarrien maiztasunari eta ordutegiei buruzko beharrezko informazioa eskaintzea, formatu irisgarrian.
3. RENFEk operatzen dituen aldirietako linea guztietan gutxieneko unitate edo tren irisgarriak (CIVIA) bermatzea, material ibiltari berria iritsi arte. Unitate edo tren horiek sarbide autonomoa izango dute, arrapalen beharrik gabe, jada egokituta dauden geltokietan, nasatik trenera, erabiltzaileen mugikortasun libre eta segururako oztopoak kenduz.
4. Hiru hilabeteko epean, irisgarritasun-plan bat aurkeztea, kronograma eta aurrekontu nahikoarekin, aldirietako linea guztiek jada egokituta dauden geltokietan nasatik eskuragarri dagoen material ibiltaria dutela bermatzeko, eta, hala ez badago, mugikortasun murriztua duten pertsonei laguntza-zerbitzua bermatzeko, trenbide-garraioa berdintasunez erabili ahal izan dezaten.

Kostu ekonomikoa: ezin da kuantifikatu, ez baitago kalkulua egiteko datu egoki eta zehatzik.